TOKIKO 3R ENPLEGU-PROGRAMA GARATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA. PROGRAMA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ABENDUAREN 29KO 140/2025 FORU DEKRETUAREN BABESPEAN KOKATZEN DA. FORU DEKRETU HORREK 3R TOKIKO ENPLEGU-PROGRAMAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA ONARTZEN DITU. PROGRAMAREN HELBURUA DA TOKIKO BEHARGINTZA ETA TOKI-ERAKUNDEEN BIDEZ OINARRIZKO KONPETENTZIA DIGITALEN GAINEKO PRESTAKUNTZA EMATEA ETA LANERAKO ORIENTAZIO, LAN-AKTIBAZIO ETA BIRKOKATZE ARLOKO NEURRIAK HARTZEA, LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONENTZAT (Esp. 16CONT-2026/000001).

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Abenduaren 29ko 140/2025 Foru Dekretuaren 3R Enplegu-programarako oinarrizko konpetentzia digitalen gaineko prestakuntza emateko eta lanerako orientazio, lan-aktibazio eta birkokatze arloko neurriak hartzeko enpresa bat kontratatzeko baldintza teknikoak ezartzea, dokumentu honetan jasotzen den moduan.

Tokiko 3R enplegu-programa langabeziaren kostu sozial (LKS) handiena jasaten duten Erandioko langabeei zuzendua dago, eta honela banatuko da:

LANERAKO ORIENTAZIOA: Honako hauek ditu xede: informazioa, banakako egoeraren diagnostikoa, aholkularitza, motibazioa eta laneratzeko prozesuan laguntzea.

Orientazio-zerbitzu hau Erandioko Behargintzaren bidez garatuko da eta gutxienez 50 langaberi zuzenduko zaie.

Zerbitzu honetan jasotako jardueren garapena baliabide propioen bidez egingo da, eta ez da lizitazioaren xede izango.

LAN-AKTIBAZIOA: Prestakuntza-eskaintzari, lan-araudiari (lan-kontratuak, eskubideak eta betebeharrak, hitzarmen kolektiboa) eta lan-merkatuari buruzko informazio-saioak egingo dira taldeka. Honako hauek jasoko dira:

- Lana aktiboki bilatzeko teknikak aplikatzea, informazioa ematea eta besteren konturako enplegua bilatzeko eskura dauden bitartekoak, teknikak eta tresnak oinarrizko moduan erabiltzea, baliabide telematikoak eta sare sozialak barne.
- Enplegu-aukerak areagotzeko baliagarriak izan daitezkeen enplegu-politika aktiboei eta lan-merkatuari buruzko datuak.

Guztira 3 saio izango dira, saio bakoitza 5 ordukoa, eta saio bakoitzean gutxienez 15 lagunek parte hartuko dute.

BIRKOKATZEA: Parte-hartzaileei lan-merkatuan sartzen laguntzea. Atal bakoitzerako hainbat jarduketa egingo dira:

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2026-03-24 07:27:24(UTC) Fecha: 24/03/2026 07:27:24 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GABRIEL RODRIGUEZ PALACIO Data: 2026-03-25 13:20:22(UTC) Fecha: 25/03/2026 13:20:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {be8eec6-396a-4946-a82a-bcb5f2e373c7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

- Balizko enplegu-eskaintzak eta enpresen beharrak aztertzea eta identifikatzea, enpresekin edo enpresa-erakundeekin egindako bisiten eta topaketen bidez.
- Lan-eskaintzak kudeatzea (eskaintzak jasotzea eta kudeatzea, eskaintzak programara bildutako pertsonekin uztartzea...)
- Kontratazioari buruzko informazioa eta aholkularitza, eta aktibazioa, kontratazioa eta enpresan sartzea bultzatzeko neurriak.

Zerbitzu hau dokumentu honetan jasotzen diren baldintzen arabera esleituko da.

Zerbitzu honetarako 500 orduko lan-poltsa bat dago. Gutxienez 50 lagunek parte hartuko dute.

KONPETENTZIA DIGITALEN ARLOKO PRESTAKUNTZA: Oinarrizko gaitasun digitalei buruzko prestakuntza-ekintzak.

Zerbitzu hau dokumentu honetan jasotzen diren baldintzen arabera esleituko da.

Enpresa esleipendunak gutxienez 10 pertsona trebatuko ditu gaitasun digitaletan. 20 orduko prestakuntza-ekintza bat ezarriko da.

Lan-aktibazio, birkokatze eta gaitasun digitalen arloko prestakuntzako emango zaien pertsonak orientazio-zerbitzuan parte hartzen dutenetatik aterako dira.

Erakundeak, horretarako egiten den epean, lan-aktibaziorako, birkokatzeko eta gaitasun digitalei buruzko prestakuntzarako proposamen tekniko zehaztuak aurkeztu beharko ditu, honako baldintza tekniko espezifiko hauetan oinarrituta:

1. NORI ZUZENDUTA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden Erandioko udalerriko langabeak izango dira hartzaileak, betiere, motibazioa ibilbide integral honetan parte hartzeko; orientazio, lan-aktibazio eta birkokatze arloko neurriak eta, hala behar denean, oinarrizko gaitasun digitalei buruzko prestakuntza barne hartuta. Gainera, BFAko abenduaren 29ko 140/2025 Foru Dekretuan eskatzen diren baldintzak bete behar dituzte.

2. PLAZA KOPURUA

Proiektu osorako plaza kopurua gutxienez 50 pertsonakoa izango da.

Proiektu honetan parte hartzen duten pertsona guztiek lan-orientazio eta birkokatze arloko ekintzak jasoko dituzte. Halaber, horietatik gutxienez 45ek lan-aktibazioko saioetan parte hartuko dute, eta gutxienez 10ek oinarrizko gaitasun digitalei buruzko prestakuntza jasoko dute. Beraz, honela geratuko da bete beharreko plaza kopurua:

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2026-03-24 07:27:24(UTC) Fecha: 24/03/2026 07:27:24 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GABRIEL RODRIGUEZ PALACIO Data: 2026-03-25 13:20:22(UTC) Fecha: 25/03/2026 13:20:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {be8eec6-396a-4946-a82a-bcb5f2e373c7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

- LANERAKO ORIENTAZIOA: gutxienez 50 plaza. Zeregin hori Erandioko Behargintzak egingo du.
  Zerbitzu honetarako lan-orientaziorako 500 orduko dedikazio-poltsa bat dago.
- LAN-AKTIBAZIOA: gutxienez 45 plaza. Enpresa esleipendunak egin beharrekoa.
  Zerbitzu honetarako 15 orduko lan-poltsa bat dago, lan-aktibazioko saioetarako.
- BIRKOKATZEKO ZERBITZUA: gutxienez 50 plaza. Enpresa esleipendunak egin beharrekoa.
  Zerbitzu honetan gutxienez 50 pertsonari emango zaie arreta, eta 500 orduko poltsa bat emango zaie proiektuan parte hartzen duten pertsonei.
- GAITASUN DIGITALETAKO PRESTAKUNTZA.
  Plaza kopurua 10ekoa izango da gutxienez. Prestakuntza-ekintza bat ezarriko da, eta gutxienez 20 ordukoa.

3. HELBURU OROKORRAK

Programaren helburu orokorra langabeziaren kostu sozial (LKS) handiena jasaten duten langabeen enplegagarritasuna sustatzea eta bultzatzea izango da.
Langabeak berriro laneratzeko jarduerak egitea da helburua, eta, horretarako, birbideratzeko nahiz birkokatzeko neurriak ezarriko dira, laneratzen laguntzeko, langabeziaren kronifikazioa prebenitzeko.

ORIENTAZIOA

Zerbitzu honen helburu orokorra hauxe da: **"parte-hartzaileei lan-merkatuan sartzen laguntzea. Horretarako, motibazioa erabiliko da, informazioa eta aholkularitza emango da, banakako egoeraren diagnostikoa egingo da eta, azken finean, laneratzeko prozesuan lagunduko da"**.

LAN-AKTIBAZIOA

Zerbitzu honen helburu orokorra hauxe da: **"parte-hartzaileei prestakuntza-eskaintzari, lan-araudiari eta lan-merkatuari buruzko informazioa ematea, taldeko saioen bidez"**.

BIRKOKATZEA:

Enpresa esleipendunak helburu orokor hau izango du: **"parte-hartzaileei lan-merkatuan sartzen laguntzea, prospekzio-ekintzen bidez, enplegu-eskaintza potentzialak eta enpresek dituzten beharrizanak identifikatuz, lan-eskaintzak kudeatuz eta kontratazioari buruzko informazioa eta aholkularitza emanez"**.

Horretarako, enpresa esleipendunak honako hauek egin beharko ditu:

- Enpresekin topaketak sustatzea eta eskaintzak kaptatzeko planak garatzea.
- Lan-eskaintzei gehien egokitzen zaizkien profilak aurre hautatzea eta identifikatzea.
- Enpresek izan ditzaketen enplegu-eskaintzak eta langile-beharrak aztertzea eta identifikatzea, enpresetara bisitak eginez, enpresa-erakundeekin hitz eginez, lanpostuak dituzten jarduera ekonomikoko sektoreak identifikatuz eta lanpostu horien profil profesionalak aztertuz.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2026-03-24 07:27:24(UTC) Fecha: 24/03/2026 07:27:24 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GABRIEL RODRIGUEZ PALACIO Data: 2026-03-25 13:20:22(UTC) Fecha: 25/03/2026 13:20:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {be8eece6-396a-4946-a82a-bcb5f2e373c7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

- Lan-eskaintzak kudeatzea; horretarako, enplegu-eskaintzak eta proiektuan parte hartzen duten langabeen eskariak uztartzen saiatuko dira, lanbide-profilen eta, bereziki, haien lanbide-gaitasunen arabera.
- Kontratazioari, aktibazioari eta enpresan sartzeari laguntzeko neurriei buruzko informazioa eta aholkuak ematea.

Enpresek, beren proposamenetan, aipatutako alderdiak teknikoki hobetu beharko dituzte, gaiaren ezagutzatik abiatuta.

GAITASUN DIGITALEN ARLOKO PRESTAKUNTZA.

Enpresa esleipendunak helburu orokor hau izango du: **"parte-hartzaileei lan-merkatuan sartzen laguntzea, teknologia berrien bidez enplegua bilatzen lagunduz eta erraztuz".**
Horretarako, enpresa esleipendunak enplegagarritasunerako oinarrizko gaitasun digitalak garatu beharko ditu, enplegua bilatzeko oinarrizko ezagutza moduan identifikatur¡ta daudenak, eta bilaketa modu eraginkor eta seguruan kudeatzeko funtsezko tresnak eman beharko ditu. Testuingurura egokitutako ezagutza, gaitasunen eta jarreren konbinazioa izango da, enplegua galdu duten pertsona guztiak lan-merkatura itzuli ahal izan daitezen.
Enpresek, beren proposamenetan, aipatutako alderdiak teknikoki hobetu beharko dituzte, gaiaren ezagutzatik abiatuta.

4. DIRUZ LAGUNDUTAKO EKINTZAK / EGIN BEHARREKO JARDUERAK

140/2025 Dekretuaren 3. oinarriaren arabera, dirulaguntza jaso ahal izango da Bizkaiko langabeak lan-merkatuan berriro sartzeko helburuarekin orientazio, aktibazio eta birkokatze neurriak hartu eta gaitasun digitalen arloko prestakuntza emateko.

Proiektuak 2026ko apirilaren 2tik 2027ko apirilaren 1era bitartean gauzatu beharko dira.

2026ko apirilaren 2tik 2027ko apirilaren 1era bitartean Behargintzak eta beste toki-erakunde batzuek egiten dituzten tokiko edo eskualde mailako jarduera-proiektuek jaso ahal izango dute dirulaguntza. Langabeei zuzenduak egon beharko dira eta laneratze-, orientazio- eta birkokatze-neurriak barne hartu beharko dituzte.

Aurkeztu beharreko proiektuak nahitaez jaso beharko ditu orientazio eta birkokatze arloko bi zerbitzuak. Dekretu horren 3. artikuluaren arabera, Lan-aktibazioko, Birkokatzeko eta Gaitasun Digitalen arloko Prestakuntzako zerbitzuak azpikontratatu ahal izango dira, 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

Hori dela eta, agiri honen helburua da Tokiko Enpleguaren 3R programaren baitan LAN-AKTIBAZIOA, BIRKOKATZEA ETA GAITASUN DIGITALEN ARLOKO PRESTAKUNTZA inplementatzeko enpresa bat kontratatzeko baldintza teknikoak ezartzea. Programa hori abenduaren 29ko 140/2024 Foru Dekretuan arautzen da, dokumentu honetan jasotzen den moduan.

Kontuan izanik Dekretu horren esparruan jasotako jarduerak:

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2026-03-24 07:27:24(UTC) Fecha: 24/03/2026 07:27:24 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GABRIEL RODRIGUEZ PALACIO Data: 2026-03-25 13:20:22(UTC) Fecha: 25/03/2026 13:20:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {be8eec6-396a-4946-a82a-bcb5f2e373c7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Genero-ikuspegia txertatu beharko dute beren garapenetan, eta bat etorri beharko dute Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren ildo estrategikoekin, berdintasunaren arloan: zeharkakotasuna, ahalduntzea eta balioak aldatzea, kontziliazioa eta erantzukidetasuna, indarkeria matxista desagerrarazteko konpromiso gisa.

Horretarako, Erandioko Behargintzak eta enpresa esleipendunak konpromisoa hartuko dute beren proiektuan genero-ikuspegia txertatzeko, eta, horregatik, enpresa lizitatzaileek proposamenean sartu beharko dute.

Horretarako, Erandioko Behargintza eta enpresa esleipenduna hori betetzen saiatuko dira. Hori dela eta, enpresa lizitatzaileek beren proposamenetan zehaztu dezakete zer neurri eta zer ekintza ezarriko dituzten aipatutakoa betetzen saiatzeko.

5. 140/2025 FORU DEKRETUAREN BABESEAN TOKIKO ENPLEGURAKO 3R PROGRAMAREN BIDEZ GARATUKO DIREN JARDUERAK

LANERAKO ORIENTAZIOA

Honako hauek ditu xede: informazioa, banakako egoeraren diagnostikoa, aholkularitza, motibazioa eta pertsonak laneratzeko prozesuan laguntzea. Behargintza Erandiok egin beharrekoa.

Jarduera hauek daude barne:

a. Banakako diagnostikoa eta profila egitea.
b. Enplegurako ibilbide pertsonalizatua diseinatzea.
c. Ibilbidearen garapenean laguntza pertsonalizatua ematea.
d. Aholkularitza eta laguntza tekniko osagarria.
e. Informazio eta aholkularitza gehigarria.

LAN-AKTIBAZIOA
ENPRESA ESLEIPENDUNAK EGIN BEHARREKO EKINTZAK:

Langabeak lan-munduan berraktibatzeko helburua du. Horretarako, prestakuntza-eskaintzari, lan-araudiari (lan-kontratuak, eskubideak eta betebeharrak, hitzarmen kolektiboa...) eta lan-merkatuari buruzko informazio-saioak egingo dira, taldeka. Gutxienez honako hauek jaso beharko dituzte:

a. Lana bilatzeko teknikak aplikatzea.
b. Informazioa eta baliabideen oinarrizko erabilera.
c. Besteren konturako lana bilatzeko teknika eta tresna eskuragarriak (baliabide telematikoak eta sare sozialen erabilera barne).

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2026-03-24 07:27:24(UTC) Fecha: 24/03/2026 07:27:24 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GABRIEL RODRIGUEZ PALACIO Data: 2026-03-25 13:20:22(UTC) Fecha: 25/03/2026 13:20:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {be9eece6-396a-4946-a82a-bcb5f2e373c7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

d. Lan-merkatuari eta enplegu-aukerak areagotzeko baliagarriak diren enplegu-politika aktiboei buruzko datuak ematea.

Saio horietan honako hauek ere landuko dira:

- Gogoeta eta autoezagutza, parte-hartzaile bakoitzak bere indarguneak eta ahuleziak hauteman ditzan.
- Kalitatezko laneratzea lortzeko eta lana bera ondo burutu ahal izateko behar diren gaitasun profesionalak lantzea.
- Parte-hartzaileen ezagutza teorikoak enpresen eguneroko praktikara egokitzea.
- Lana bilatzeko jarrera aktiboa eta errealista sortzea.
- Ikaskuntza eta lan autonomo arduratsua sustatzea.
- Autoestimua eta segurtasun pertsonala handitzea.

Enpresa lizitatzaileek, beren proposamenetan, aipatutako alderdiak teknikoki hobetu beharko dituzte, gaiaren ezagutzatik abiatuta.

Enpresek beren proposamenetan zehaztu beharko dute nola gauzatuko duten aztergai dugun Lan-aktibazioko zerbitzua, zehatz-mehatz adierazi beharko dute zein bilera egingo dituzten, zehaztu beharko dute zein metodologia erabiliko duten, zein helburu orokor eta espezifiko izango dituzten eta zein jarduera egingo dituzten. Horrez gain, gauzatze-epeak eta gauzatzeko ardura izango duten pertsonak, erabiliko dituzten baliabideak eta jarraipena/ebaluazioa egiteko modua adierazi beharko dituzte.

BIRKOKATZEA

ENPRESA ESLEIPENDUNAK EGIN BEHARREKO EKINTZAK:

Parte-hartzaileei lan-merkatuan sartzen laguntzeko, enpresa esleipendunak hainbat ekintza egingo ditu honako atal hauetako bakoitzerako:

- Enpresek egin ditzaketen lan-eskaintzak eta pertsonen beharrak aztertzea eta identifikatzea.
- Lan-eskaintzen kudeaketa.
- Kontratazioari buruzko informazioa eta aholkularitza.

Gainera, enpresa esleipendunak helburu hori lortzen lagunduko duten ekintzak egingo ditu, Erandioko langabeak lan-merkatuan berriro barneratzeko eta. Honen bidez egingo da:

- Enpresekin topaketak egitea eta eskaintzak kaptatzeko planak garatzea.
- Lan-eskaintzetara gehien egokitzen diren profilak identifikatzea.
- Enpresek izan ditzaketen lan-eskaintzak eta langile-beharrak aztertu eta identifikatzea. Hainbat ekintzaren bidez egingo da, besteak beste:
  - Enpresetara bisitak egitea.
  - Enpresa-erakundeekin hitz egitea.
  - Lanpostuak dituzten jarduera ekonomikoko sektoreak identifikatzea.
  - Lanpostu horien lanbide-profilen azterketa.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2026-03-24 07:27:24(UTC) Fecha: 24/03/2026 07:27:24 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GABRIEL RODRIGUEZ PALACIO Data: 2026-03-25 13:20:22(UTC) Fecha: 25/03/2026 13:20:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {be9eece6-396a-4946-a82a-bcb5f2e373c7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

- Lan-eskaintzak kudeatzea, eskaintzak eta eskaerak uztartuz, hainbat ekintzen bidez, besteak beste;
  - Enplegu-eskaintzak kaptatu eta kudeatzea.
  - Proiektuan parte hartzen duten langabeak eta eskaintzak uztartzea, haien lanbide-profilaren eta, bereziki, haien lanbide-gaitasunen arabera.
- Kontratazioari eta aktibazioari laguntzeko neurriei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.

Kontuan hartuko da Birkokatze Zerbitzutik gutxienez 50 pertsona artatuko direla, eta parte-hartzaileei gutxienez 500 orduko dedikazioa emango zaiela.

Enpresa lizitatzaileek, beren proposamenetan, aipatutako alderdiak teknikoki hobetu beharko dituzte, gaiaren ezagutzatik abiatuta.

Enpresek beren proposamenetan zehaztu beharko dute nola gauzatuko duten hizpide dugun Birkokatze Zerbitzua, eta zehatz-mehatz adierazi beharko dute egin beharreko jarduketa bakoitza, aplikatu beharreko metodologia, helburu orokorrak, espezifikoak eta egin beharreko jarduketak, gauzatze-epeak eta gauzatzeko ardura duten pertsonak, erabili beharreko baliabideak eta jarraipena/ebaluazioa egiteko modua adieraziz.

GAITASUN DIGITALEN ARLOKO PRESTAKUNTZA.

ENPRESA ESLEIPENDUNAK EGIN BEHARREKO EKINTZAK:

Parte-hartzaileei lan-merkatuan sartzen lagunduko zaie, teknologia berrien inguruko prestakuntza emanez. Enpresa esleipendunak gaitasun digitalen arloko 20 orduko prestakuntza-ekintza bat egingo du, eta gutxienez 10 lagunek parte hartuko dute.

Prestakuntza-ekintza:

- Oinarrizko gaitasun digitalei buruzko 20 orduko prestakuntza-ekintza, Interneten bidez enplegua aktiboki bilatzeko oinarrizko tresna teknologikoak ezagutzen ez dituzten 10 pertsonari zuzendua.

  Enpresek aurkeztutako proposamenean zehaztu beharko dira orduen eta edukien banaketa.

  Prestakuntza-jardueraren gutxieneko edukia honako hau izango da:

  - Internet erabiltzen hasi eta lana bilatzea: PCa, web-nabigatzaileak, bilatzaileak, posta elektronikoa, lan-merkatuari buruzko informazioaren bilaketa, enpresen informazioa, enpresen zerrendak, enplegu-webguneak.
  - Lana bilatzeko tresnak eta testu-prozesadorea.

  Enpresak eduki gehigarria garatu dezakete, Tokiko 3R Enplegua Programako dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarriak betetzeko. Deialdiaren lizitazio-eskaintzan zehaztu beharko da.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2026-03-24 07:27:24(UTC) Fecha: 24/03/2026 07:27:24 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GABRIEL RODRIGUEZ PALACIO Data: 2026-03-25 13:20:22(UTC) Fecha: 25/03/2026 13:20:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {be9eec6-396a-4946-a82a-bcb5f2e373c7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Enpresek, beren proposamenetan, OINARRIZKO KONPETENTZIA DIGITALEN GAINEKO PRESTAKUNTZA nola gauzatuko duten zehaztu beharko dute. Horretarako, helburu orokorrak, espezifikoak eta landu beharreko edukiak zehaztu beharko dituzte, bai eta gaitasun digitalen prestakuntzan aplikatu beharreko metodologia ere, aurreikusitako prestakuntzaren xehetasunak, prestakuntza-ekintzen deskribapena, landu beharreko eduki bakoitzerako ordu-kopurua, jarraitu beharreko gaiak, erabili beharreko baliabideak eta ebaluazioa zehaztuz. Halaber, epeak eta betearazteko ardura duten pertsonak zehaztuko dituzte.

Era berean, entitate esleipendunak Erandioko Behargintzarekin batera egin beharreko programako jarduerak 6. puntuko LERRO hauetan banatuko dira:

6. JARDUERA-ILDOAK

1. ildoa	LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONAK HARTZEA ETA HAUTATZEA
HELBURUA	Tokiko 3R Enplegu programaren araudiaren arabera baldintzak betetzen dituzten Erandioko interesdunak identifikatzea, erakartzea eta hautatzea (140/2025 FD)
GARAPENA	Behargintzak bitarteko zuzenak zein zeharkakoak erabiliko ditu programa zabaltzeko eta izena emateko epean zehar, eta Behargintza erakunde esleipendunarekin lankidetzan arituko da lan-aktibazioa, birkokatzea eta gaitasun digitaletako prestakuntza planifikatzeko eta egiteko.
EMAITZAK	Gutxienez 50 parte-hartzaile hautatzea.
BURUTZEKO EPEA	2026ko apiriletik urtarrilera arte, edo plazak esleitzen amaitu arte.
ARDURADUNA	Behargintza talde teknikoa.

2. ildoa	BANAKAKO DIAGNOSTIKOAREN ANALISIA ETA SEGMENTAZIOA ETA PROFILA LANTZEA
HELBURUA	Langabezian dauden eta Lanbide-EEZn izena emanda dauden Erandioko pertsona horien beharrizanei behar bezala erantzuteko, haien profilaren arabera taldea bereiztea.
GARAPENA	Azterketa, banakako diagnostikoa eta parte-hartzaile bakoitzaren profila. Jarraitu beharreko 3R ibilbide mota zehaztuko da = Orientazioa + *Lan-aktibazioa* + Birkokatzea + *Gaitasun Digitaletako Prestakuntza*
EMAITZAK	Analisiaren, banakako diagnostikoaren eta parte-hartzaile bakoitzaren profilaren eta jarraitu beharreko 3R ibilbide motaren arabera: Orientazioa, gutxienez poltsako 50 pertsona (500 ordu)+Birkokatzea, gutxienez poltsako 50 pertsona (500 ordu) Lan-aktibazioa gutxienez 45 pertsona – 5 orduko 3 saio Eta beren profilak hala eskatzen duen parte-hartzaileentzat, oinarrizko gaitasun digitalei buruzko 20 orduko prestakuntza.
BURUTZEKO EPEA	2026ko apiriletik aurrera egitea proposatzen da
ARDURADUNA	Birkokatzeko, lana aktibatzeko eta gaitasun digitaletan trebatzeko erakunde esleipen-hartzaileak Behargintzarekin batera lan egingo du.

3. ildoa	ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA ETA ENPLEGU-AUKERAK HAUTEMATEA
HELBURUA	Udalerrian eta lurraldean dauden enplegu-aukerak eta enpresen eskaerak detektatzea. Udal-enpresen sarea indartzea, haien artean parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko espazioak sustatuz.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2026-03-24 07:27:24(UTC) Fecha: 24/03/2026 07:27:24 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GABRIEL RODRIGUEZ PALACIO Data: 2026-03-25 13:20:22(UTC) Fecha: 25/03/2026 13:20:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {be9eec6-396a-4946-a82a-bcb5f2e373c7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

GARAPENA	Enpresa-sarea aztertzea eta Tokiko 3R Enplegu programan parte hartu behar duten enpresak hautatzea, prospekzioaren bidez. Udalerriko eta eskualdeko enpresetan pertsonak sartzeko premiak aztertzea, jarduera-sektoreen arabera. Jarduera ekonomikoaren eta lan-merkatuaren datuak aztergai dugun kolektiboaren beharrei aplikatzeko ezagutza bihurtzea. Enpresek eskatzen dituzten lanpostuen/okupazioen eta lanbide-profilen zerrenda egitea. Arlo jakin horretan (probintzia, eskualdea, udalerria) potentzial asoziatua duten sektore/produktuei eta etorkizunean izango diren lanbideei buruzko informazioa ematea, eremu/eskualdearen gaitasunetatik eta egungo egoeratik abiatuta. Parte-hartzaileen egungo gaitasunak lurraldearen eta enpresa baten etorkizuneko potentzialarekin alderatzea, eta dauden desorekak identifikatzea, programan parte hartzen duen kolektiboarekin nola bete diseinatzeko (aldez aurretik zehaztu baititugu eskatzen diren profil profesionalak). Datu ekonomiko bereizietan oinarrituta, hobeto egokitzeko eta jarduera berriak (zerbitzu berriak, produktuak...) sustatzeko gai diren arloak, sektoreak identifikatzea.
EMAITZAK	Proiektuan parte hartzen duten enpresen poltsa, entitate kontratatzaile potentzial gisa modu aktibo eta eraginkorrean parte hartuz. Enpresa-sareak eskatutako lanbide-profilak.
BURUTZEKO EPEA	2026ko maiatzetik 2027ko martxora arte egitea proposatzen da.
ARDURADUNA	Birkokatzeko, lana aktibatzeko eta gaitasun digitaletan trebatzeko erakunde esleipen-hartzaileak Behargintzarekin batera lan egingo du.

4. ildoa	IBILBIDE PERTSONALIZATUA DISEINATZEKO AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA
HELBURUA	Norberaren eredua hobetzea eta berritzea, profesional gisa, enplegua aktiboki bilatzeko. Pertsona bakoitzaren laneratzeko eta birlaneratzeko plan pertsonalizatua definitzea eta denboralizatzea. Lan-merkatuaren eta bakoitzaren enplegu-aukeren arabera erabaki errealistak hartzen jakitea. Pertsonak laneratzeko edo birkokatzeko duen gaitasuna hobetzea eta balio erantsia ematea. Erabiltzaileak enplegua aktiboki bilatzeko gako nagusiak definitzea. Zeharkako alderdiak, motibaziozkoak eta profesionalak lantzea. Enplegu-eskatzaile orok gogoan izan beharrekoak.
GARAPENA	Diagnostiko pertsonalizatua: Banakako orientazioa - Diagnostiko profesionala eta pertsonala eta Laneratzeko ibilbidea - Beharren diagnostikoa. Tutoretza- eta laguntza-ekintzak: orientabidea, motibazioa eta ekintza-planaren dinamizazioa, talde-saioen eta banakako tutoretzen bidez, eta pertsona bakoitzari egokitutako informazio profesional orokorra. Lan-merkatuari buruzko informazioa biltzeko taldekako saioak, lan-merkatuan berriro sartzeko. Banakako ekintzak, aukera emango dutenak enplegu-eskatzailearen informazio pertsonalizatua jasotzeko, haren enplegagarritasunaren balorazioa egiteko eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak egin eta diseinatzeko, bai eta enplegua bilatzeko jarduerarekin zuzenean lotutako prestakuntza- edo informazio-beharrizan espezifikoak zuzentzeko ere.
EMAITZAK	Autoezagutza eta autodiagnostiko pertsonalizatuak. Laneratzeko-birlaneratzeko/birkokatzeko plan pertsonalizatua. Helburu profesionalen definizioa. Interesak eta bokazio-lehentasunak argitzea. Jarduketa-planaren eredu pertsonala zehaztea.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2026-03-24 07:27:24(UTC) Fecha: 24/03/2026 07:27:24 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GABRIEL RODRIGUEZ PALACIO Data: 2026-03-25 13:20:22(UTC) Fecha: 25/03/2026 13:20:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {be8eece6-396a-4946-a82a-bcb5f2e373c7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

	Lan-merkatuan sartzeko tresnak, teknikak eta bitartekoak trebetasunez erabiltzea, enplegua aktiboki bilatuz. Lan-araudia eta -merkatua benetan ezagutzea.
BURUTZEKO EPEA	2026ko maiatzetik 2027ko martxora arte egitea proposatzen da.
ARDURADUNA	Birkokatzeko, lana aktibatzeko eta gaitasun digitaletan trebatzeko erakunde esleipen-hartzaileak Behargintzarekin batera lan egingo du.

5. ildoa	OINARRIZKO GAITASUN DIGITALAK GARATZEA ENPLEGAGARRITASUNERAKO
HELBURUA	Enplegagarritasunerako funtsezkoak diren oinarrizko gaitasun digitalak garatzea, enplegua bilatzeko oinarrizko ezagutzak lortzeko identifikatuak, bai eta haien bilaketa modu eraginkor eta seguruan kudeatzeko oinarrizko tresnak erabiltzea ere. Testuingurura egokitutako ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak konbinatzen dira, langabetu guztiak lan-merkatura arrakastaz itzuli ahal izan daitezen.
GARAPENA	Prestakuntza-ekintza 1 garatzea. Berrorientazio-prozesuan hautemandako beharren arabera osatu beharreko taldeak bereizten direnez, oinarrizko gaitasun digital hauek garatzea proposatzen dugu: PRESTAKUNTZA-EKINTZA: Enplegua galdu duten eta besteren konturako enplegua bilatzeko bitartekoen, tekniken eta tresnen oinarrizko gaitasun digitalak ez dituzten 15 pertsonako taldea, gutxienez. Gaitasun horietan 20 orduko kualifikazio-prozesua izanik, EBA bat eginez lan-merkatura itzultzeko aukera izango dute. Talde honen helburu orokorra hauxe da: “Helburu pertsonalak lortzea ahalbidetuko duten ezagutza eta tresna praktikoak eskuratzea, enplegua aktiboki bilatzeko giltzarritzat jotzen diren gaitasun digitalak garatuz”.
EMAITZAK	Gutxienez 10 langabe, lan-merkatura itzultzeko oinarrizko ezagutza eta trebetasun digitalak lortuta, enplegagarritasun-egoera hobetzen dutenak eta lehiakortasuna, ongizate pertsonala eta efizientzia profesionala bultzatzen dituztenak.
BURUTZEKO EPEA	2026ko abenduan / 2027ko urtarrilean egitea proposatzen da.
ARDURADUNA	Birkokatzeko, lana aktibatzeko eta gaitasun digitaletan trebatzeko erakunde esleipen-hartzaileak Behargintzarekin batera lan egingo du.

6. ildoa	PARTE-HARTZAILEEN BIRKOKATZEA, BITARTEKOTZA ETA LANERATZEA
HELBURUA	Programan parte hartzen duten pertsonen enplegagarritasuna sustatzea, lan-merkatuan sar daitezen lagunduz, enpresekin topaketak eginez, eskaintzak erakartzeko planak garatuz eta bi norabideko kalitatezko zerbitzua eskainiz eskatzaileari eta enpresa potentzial kontratatzaileari, ahalik eta parte-hartzaile gehien birkokatzeko.
GARAPENA	Enpresen erakarpena eta topaketak. Lan-eskaintzak erakartzea. Eskaintzak eta eskaerak uztartzea. Lana aktiboki bilatzen duten langabeei aholkularitza ematea. Antzemandako lan-eskaintzei ondoen egokitzen zaizkien profilak identifikatzeko aurrehautaketa. Enpresei aholkularitza ematea eta kontrataziorako laguntzen kudeaketa.
EMAITZAK	TOKIKO 3R ENPLEGU programaren birkokatze-dispositiboan parte hartzen duten 50 pertsona gutxienez lan-merkatuarekin harremanetan jartzeko bitartekaritza egitea.
BURUTZEKO EPEA	2026ko maiatzetik 2027ko martxora arte egitea proposatzen da.
ARDURADUNA	Birkokatzeko, lana aktibatzeko eta gaitasun digitaletan trebatzeko erakunde esleipen-hartzailea Behargintzarekin batera lan egingo du.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2026-03-24 07:27:24(UTC) Fecha: 24/03/2026 07:27:24 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GABRIEL RODRIGUEZ PALACIO Data: 2026-03-25 13:20:22(UTC) Fecha: 25/03/2026 13:20:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {be8eece6-396a-4946-a82a-bcb5f2e373c7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Enpresa lizitatzaileek, beren proposamenetan, gaiaren ezagutzatik abiatuta, puntu honetan aipatutako alderdiak teknikoki hobetu beharko dituzte, eta zehatz-mehatz azaldu beharko dituzte jarduketa-lerroetan sartuta dauden atal guztiak, hain zuzen ere, entitate esleipenduna bera bada kontratua egikaritzearen arduraduna: 3. lerroa (produkzio-sektorean enplegu-aukeraren prospekzioa), 4. lerroa (ibilbide pertsonalizatuaren diseinua - aholkularitza eta laguntza tekniko osagarri beraren garapenean laguntzea), 5. lerroa (enplegagarritasunerako oinarrizko gaitasun digitalen garapena) eta 6. lerroa (parte-hartzaileak birkokatzea/bitartekotza eta laneratzea). Jarduera-ildo horiek enpresa esleipendunaren ardurapeko zerbitzuetan sartzen dira: Lan-aktibazioko ekintzak, Oinarrizko konpetentzia digitaletako prestakuntza eta Birkokatze-zerbitzua.

Proposamen horretan, jarduketa-ildoak zehaztu beharko ditu, helburuak, garapena (zehatz-mehatz azaldutako jarduketak, estrategiak...), emaitzak, aurreikusitako epeak, egikaritzeko ardura duten pertsonen profilak/kategoriak, bai eta garrantzitsutzat jotzen dituzten eta proiektuaren helburuari laguntzen dioten beste alderdi batzuk ere.

7. METODOLOGIA

Talde hartzailea, proiektuaren helburua eta garatu beharreko ekintzak abiapuntu hartuta, erabili beharreko metodologia aktiboa, parte-hartzailea eta dinamizatzailea izango da; parte-hartzaileek pisu espezifiko handiena izango dute, eta parte-hartzaile bakoitzaren laguntza indibidualizatu eta pertsonalizatua izango da programaren ardatza.

Teknikarik onenak eta proposatu beharreko jarduerak izango dira parte-hartzaileak lanera itzul daitezen lagunduko dutenak.

Enpresa lizitatzaileek zehatz-mehatz zehaztu beharko dute aplikatu beharreko metodologia LAN-AKTIBAZIOKO ekintzetan, BIRKOKATZE-ZERBITZUAN, bai eta GAITASUN DIGITALEN PRESTAKUNTZAN ere.

8. BALIABIDEAK

Baliabide teknikoak zein materialak (espazioak, ekipamenduak...) gizarteratzeko prozesu integralaren martxa ona bermatzen dutenak izango dira, zerbitzu bakoitzerako proposatutako helburuak lortzeko. Horiek guztiak bete beharko dira.

Halaber, kontratatutako enpresak oso-osorik bete beharko ditu zehaztutako ekintzak eta jarduera-ildoak, eta lanean hasteko jarduerak egin beharko ditu. Egin beharreko edozein laguntza-neurrik balioa izango du, baldin eta azken helburua lortzen laguntzen badu edo prozesua errazten badu, kosturik gabe hobetzen bada.

Proiektu horiei atxikitako profesional-taldea arduratuko da deskribatutako jarduerak, haiek beren proposamenean proposatzen dituztenak eta abian jartzetik eta garatzetik eratortzen diren guztiak egiteaz.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2026-03-24 07:27:24(UTC) Fecha: 24/03/2026 07:27:24 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GABRIEL RODRIGUEZ PALACIO Data: 2026-03-25 13:20:22(UTC) Fecha: 25/03/2026 13:20:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {be8eec6-396a-4946-a82a-bcb5f2e373c7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Lan-aktibazioko eta birkokatze-zerbitzuko ekintzak, parte-hartzaileenganako zuzeneko arretarekin lotutakoak, Erandioko Udalak kontratatutako enpresari jarritako instalazioetan egingo dira. Bestalde, gaitasun digitalen trebakuntzari dagozkion prestakuntza-ikastaroak Udalak xedatutako instalazioetan egingo dira, baina kontratatutako enpresak osasun-larrialdietan ezarritako neurriak betetzen dituzten instalazio propioak izan beharko ditu, Udalaren instalazioek betetzen ez badituzte.

Kontratatutako enpresak beharrezko eta egokiak diren langile teknikoak eta administrariak jarriko ditu lan-aktibazioko ekintzak, birkokatze-zerbitzuaren ekintzak eta gaitasun digitalen arloko prestakuntza-ekintzak behar bezala garatzeko, bai eta proiektuaren kontrol-, jarraipen- eta ebaluazio-alderdiak betetzeko eta ziurtatzeko langileak ere.

Zerbitzuak gauzatzeko erabili beharreko baliabideei buruzko informazio guztia (lan-aktibazioa, birkokatzea eta gaitasun digitalen arloko prestakuntza) enpresa lizitatzaileen proposamenetan ere zehaztuko da.

Era berean, Lan Aktibazio, Birkokatze eta Konpetentzia Digitaletako Prestakuntza ekintzen enpresa esleipendunak, Lan Aktibazio Zerbitzua edo Birkokatze Zerbitzua aurrez aurre gauzatzea eragozten duten salbuespenezko edo ezinbesteko kasuetan, beharrezko baliabideak bideratuko ditu hura gauzatzeko, bitarteko telematikoen bidez, online baliabideen edo beste batzuen bidez.

Horretaz gain, eta gaitasun digitalen arloko prestakuntza emateko, ezinbesteko betekizunak izango dira teleprestakuntzako prestakuntza-ekintzak emateko:

a) Ikaskuntza sistematizatuko prozesua dakarten euskarri didaktikoak, nahitaez tutoretzaren laguntzarekin osatuko dena.
b) Prestakuntza-plataformen gutxieneko ezaugarriak. Onuradunek prestakuntza gauzatzeko erabiltzen duten teleprestakuntzako plataformak baldintza hauek bete beharko ditu:

1.– Prestakuntza-proiektu bat izatea, non ikaskuntza-metodologia, jarraipena eta ebaluazioa zehaztuko diren.

2.– Online eskuliburu bat izatea ikaslearentzat, plataformaren funtzionamenduari eta ikasleak plataformarekin egiten dituen oinarrizko eragiketei buruzkoa, on-line prestakuntzaren jarraipena egiteko. Eskuliburua deskargatu eta off-line kontsultatu ahal izango da.

3.– «On-line» ikaskuntza-sistema bat izatea, ikasleen prestakuntza kudeatzeko eta bermatzeko gaitasun nahikoa duena. Sistema horrek baldintza hauek bete beharko ditu:

- Aplikatu beharreko arau teknikoan adierazitako fidagarritasun, segurtasun, irisgarritasun eta interaktibitate mailak biltzea.
- Erabiltzaile izan daitezkeen guztiei aldi berean sartzeko aukera ematea, ikasturteko etapa guztietan uniformea izango den plataformaren banda-zabalera bermatuz.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2026-03-24 07:27:24(UTC) Fecha: 24/03/2026 07:27:24 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GABRIEL RODRIGUEZ PALACIO Data: 2026-03-25 13:20:22(UTC) Fecha: 25/03/2026 13:20:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {be8eece6-396a-4946-a82a-bcb5f2e373c7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

4.– Plataforma erabiltzeko lizentzia egokiak izatea.

5.– Publizitaterik ez izatea. Ez da publizitatetzat hartuko fabrikatzailearen logotipoa edo copyright delakoa.

6.– Edukiak editatzea.

7.– Beti prest egotea, 24 x 7.

9. EBALUAKETA eta JARRAIPENA:

Pertsonen eta enpresen egoera ezagutzeko mekanismoak ezarri behar dira, egoera hori bientzat egokia dela bermatuz eta zerbitzua ebaluatuz.

